# AZPEITIAN ZER?

**HAMABOSTEROKO KULTUR ALDIZKARIA**

42 zenb. 1991ko AZAROA ALE BEREZIA AZPEITIKO UDALA



EUSKADIKO IX. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

1991ko ABENDUAREN 1etik 21era.

A Z P E I T I A

EUSKADIKO -1991- ANTZERKI TOPAKETAK

# Aurkezpena

Kaixo Adizkideok!

Azpeitiko Udalak, bere Kultur Batzordearen bidez, agurtzen zaituzte eta bide batez, EUSKADIKO IX. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETEN berri eman nahi dizuete.

Urtez-urte sendotu eta sustrai sakonagoak hartzen ari dela agerian dago eta lurraldeak dituen zenbait talderen lotura eta erakustoki bihurtu dela Azpeitian Euskal Antzerki Topaketa.

Haseran genituen helburu berdinekin jarraitzen dugu:

- Euskera bultzatzea.
- Antzerki berriak sortaraztea.
- Euskeraz idatzitako antzerkiak antzeztea.
- Antzerki taldeak animatzea eta alizienteak ematea.

Bestalde, Euskera hutsezko Antzerki Topaketak egiten diren lehenengo tokia eta bakarra denez, eta bertara hurbiltzen direnez Euskal Herrian Antzerkiak euskaraz egiten dituzten talde guztiak, aurtendik aurrera EUSKADIKO EUSKAL ANTZERKI TOPAKETEN izena emango diogu.

Beste bi gauzaren berri eman nahi dizuegu: Aurten Toribio Alzagaren heriotzaren 50. urtemugan gaudenez, Euskadiko Ikastetxeetako gazteentzat lehiaketa bat antolatu dugu honen inguruan. Honez gain, topaketen barnean Agustin Zubikarai, Abenduaren 19an omenduko dugu, antzerki munduan hainbat urtetan egindako lan handiagatik.

Aurreko urtetan bezala, herriko kaleak girotu nahirik Kaleko Antzerkia ere hor izango dugu.

Besterik gabe, denon guztoko antzerkia izango dugulakoan, aditasun osoz agurtzen zaituztegu.

KULTUR BATZORDEA.



# ANTZERKI EMANALDIEN AURKIBIDEA

**AZAROA**

Larunbata 30 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**TANTTAKA TALDEA - Zilbor Hestea**

**ABENDUA**

Igandea 1 - Eguardiko 12,45etan - KALEAN
**GOG I MAGOG TALDEA - Cercavila Kalejira**

Astelehena 2 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**KANDELA PRODUKZIOAK**
**Nadira eta kristalezko bola**

Asteazkena 4 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**TANTTAKA TALDEA - Hansel eta Gretel bezala**

Osteguna 5 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**IN FRAGANTI - In fraganti**

Larunbata 7 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**BORDATXURI TALDEA - Berantenaz seietan**

Igandea 8 - Eguardiko 12,45etan - KALEAN
**GOG I MAGOG TALDEA - In illo tempore**

Ostirala 13 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**BEDEREN 1 - Desioen pontxea**

Larunbata 14 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**ANTXIETA TALDEA**
**Beste mundukoak eta zoro bat**

Igandea 15 - Eguardiko 12,45etan - KALEAN
**KUKUBILTXO TALDEA - Jalgi hadi dantzara**

Astelehena 16 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**SAMBHU TEATRO**
**Zenbat eta gorago muturreko handiago**

Asteartea 17 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**HAMAR GEI BAT LEOTARDO - Irudimen iheslaria**

Ostirala 20 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXON
**MARKELIÑE TALDEA - Zeruko lumak**

Larunbata 21 - Arratsaldeko 7,30etan - ZELAITXON
**PORPOL TALDEA - ''Quizás''**



EUSKADI
-1991
ANTZER
TOPAKE



Agustín Zubikarai



# Nor naiz ni?

**AGUSTIN ZUBIKARAI**

Ondarruan 1.914an jaioa. 1.932an EKINen sartu zen lanean. EUSKADI egunkarian ere idatzi zuen.

Batzokian antzerki taldeko zuzendaria autatu zuten. Antzerkia idazten eskola mutilentzako obra batekin hasi zen ''Alberrijagaz bizi'' antzezlana.

1.934ean ''Illobaren Indarra'' Euskadi egunkarian agertu zen idatzita. 1.935ean aipatutako egunkari horretan atalka agertu zen ''Itsas Lapurrak''. Bilbon 1.935ean Eusko Gaztediak eratutako Euskal Antzerki Lehiaketan ''Itsas ertzeko itsu mutilla'' antzezlana aurkeztu zuen.

Ondorengo urtetan idazleentzat zentzura gogorra zegoen gainean. 1.949an berriro ekiten dio idazteari eta ''Itsasora'' ekintza bakarreko antzezlana aurkeztu zuen eta Biarritzen sarituta izan zen.

Talde bat osatzera animatu eta 60-70eko talde batekin lanean hasi zen. 1.956an EGANen argitaratutako lan batekin estreinatu ziren.

1.958an ''Jaunaren Bidetan'' antzezlana estreinatu zuten Ondarruan eta Euskaltzaindiaren eskutik Euskal Herrian zehar antzeztu zuten. Azpeitiarrek zatiren bat aldatuta eta Altunaren musikagaz antzeztu zuten ere obra hau.

Kresala taldea lanean jotake indartzen joan zen 1.961etik 1.965era herriz herri geratu gabe aritu ziren, askotan lana berogarri txiki baten truke egiten zutelarik. Honela ''Zurrukutun'' 1.965ean eta ''Atxuriko Milagrua'' 1.966ean antzeztu zituzten.

Geroak gero, taldea hain haundia izanik nekatzen edo hasi zen, bestalde garai giro eta helburuen berfinkatzea zela eta KRESALA taldea sakabanatu egin zen.

Agustin Zubikaraiek, dena dela, gogor ekin zion idazteari, guztira 40 bat antzezlan idatzi ditu. Asko argitaratuak izan baldin badira ere, berari gehien atsegingo zitzaion bere lanak antzeztuak izatea litzateke, hori bait da antzezlan batek desiratzen duen benetazko bizitza.



USKADIKO
-1991-
ANTZERKI
OPAKETAK



# TORIBIO ALZAGA

**heriotzaren 50. urtemuga**



## Toribio Alzaga eta Euskal Teatroa

Aurten 1.991an, 50 urte dira Toribio Alzaga hil zela. Donostiako 31 de Agosto kalean jaio zen, 1.861ean Apirilaren 16ean. Bigarren gerra karlistaren garaian Ipar Euskal Herrian izan zen, Ziburun, Marzelino Soroa ere bai, eta honek idatzitako IRIYARENA bertan jokatu zutenean han zen antzezleen artean hamahiru urtekin.

Aita zurginak aroztegiarako nahi zuen, baina barren-barreneraino sartua zuen antzerki-harra. Berehala ziren Toribio eta Baleriano Soroarekin batera komeriak prestatzen, Luistarren aretoan, baita bere etxeko ganbaran ere.

1.888an idatzi eta saritu zioten bere lehenengo antzerkia. ATERAKO GERA, eta ondoren zenbait opera sortu zuen.

Alzagaren bizitzan, eta euskal teatroa osoaren bilakaeran, garrantzi bereziko urte bat, eman beharko bagenu, 1.914 izango litzateke. Urte horretan Abelino Barriola Donostiako zinegotzi antzerkizalea, Euskal Iztundea edo ''Academia de Declamación Vasca'' sortarazteko proiektua aurkeztu zuen Udalean. Proposamena onartu zen, bertako katedradun izateko Alzaga aukeratu zuten.

Une honetik aurrera, lan ugari eta handiak egin zituen Alzagak: Euskarazko Eskolak eman, obra asko idatzi zitun, hogeitamarren bat, Zanpantzar, Mutilzar, Neskazar, Amantxi, eta abar, garai hartan Donostian egiten ziren bertso txapelketan ere epaimahaikoa izan zen.

Toribio bere garaian Euskal Teatroko errege izana zela esan dezakegu, Euskal Iztundea sortu eta handik hamalau urtera berrogeitamar antzerki zituzten emanak eta guztira 150 bat emanaldi.

Aktoreei irakastea, noski, zeregin garrantzitsuenetakoa zuen, eta bere eskutik paseak dira garai hartako antzezlarik ezagunenak, hala nola, Beorlegi, Egileor, Etxeberria, Ugartetxea, eta abar; orduko lekukotasunek esaten digutenez, oso onak eta ospetsuak ziren.

Alzaga bere garaiko Donostiako teatroaren bultzagile nagusia eta muina izan zela diogunean ez da pentsatu behar txoko jakin bateko antzerkigintzaz bakarrik ari garenik, Euskal Herri osoaz baizik. Antonio M.ª Labaienek idatzi zuen euskal teatroaren historia egitean: ''Alzaga jauna da Euskal Antzerkiari eutsi diona, eragilea ta pizkortu duna, laguntza gutxi izan arren''.

1.901ean ezkondu egin zen 40 urte zituela, bost seme-alaba izan zituen, bostgarrena M.ª Luisa bizi da oraindik. 1.941eko maiatzaren 27an hil zen.



SKADIK
-1991-
NTZERK
PAKETA



## SINOPSIA

«Hau bertsio lan bat izan da. Urte zail eta bortitzetan idatzitako kantuak, gaur egun ia historia direnak. Urrutiko etorkinetako doinuak, kantu herrikoiak eta sorkuntza lan berriagoak. Guztiak berrikusiak izan dira sortu eta bersortzeko asmo bikoitzaz.

Mikelek urte luze hauetan sortu eta jasotako kantuak izan dira abentura honen abiapuntua. Morroi izan gabe leial izateko abentura, beste batzuren artean. Aurrerantza jotzeko abentura, konplexurik gabe, nire ideiak bere hizkuntzaz esanaz orain, eta bere ideiak nire hizkuntzaz esanaz gero. Eta dena une berean. Musika hasten da eta dena dago justifikatua. Baina ezer ez da hain erreza.

Lau musikok itxuratzen dute proposamen hau, eta etiketatzeko hain zaila gertatzen den (ez baita ez folk, ez jazz, ez «new age», baina era berean hori dena baita) musikaren kolore eta tinbrez jazten dute. Perkusioa, saxoa, pianoa, teklatuak, baxua, kitarra, xirula, eskusoinua..., osatzen dute, ez galdetu eta ez erantzun egiten duen moralejarik gabeko ipuin honentzako orkesta. Eta jo egiten dugu, halabeharrez jo gainera, gure inguruan dugun musikari buruzko gure ikuspena adierazteko beharra bait dugu; astinaldi bat eman nahi diogu, lozorroan gelditu ez dadin».

Iñaki Salvador.

# TANTTAKA



## FITXA ARTISTIKOA

**Musika/Música:** IÑAKI SALVADOR

MIKEL LABOAK sortu eta bildutako abestietan oinarrituz.
Sobre temas creados y recogidos por MIKEL LABOA.

**Koreografia/Coreografía:** IÑAKI LANDA

**Musika zuzendaria/Dirección musical:** IÑAKI SALVADOR

**Dantzariak/Bailarines:**
ZALOA ARREGI, NEREA ARRIZABALAGA,
ARROXE MADURGA, MILA MARTINEZ,
PEDRO MONTOYA, ANA REMIRO, MIGUEL ZUBELDIA

**Musikariak/Músicos:**
AITOR LANDETA (Perkusioa/Percusión)
EDUARDO SALVADOR eta
(Baxua, kitarrak eta trabestako flauta)
(Bajo, guitarra y flauta traversera)
JOSETXO SILGUERO (Saxo sopranoa/Saxo soprano)

**Ahotsa/Voz:** MIREIA GABILONDO

**Jantziteriaren diseinua/Diseño de vestuario:**
MABEL GUTIERREZ

**Argiteriaren diseinua/Diseño de iluminación:** SANTI EZKURRA

**Diseinu grafikoa/Diseño gráfico:** RIKARDO AZKARGORTA

**Dantza maisua/Maestra de ballet:** KONTXI ARANBURU

**Erripikatzailea/Repetidora:** ARANTXA BALENCIAGA

**Eszenaratzea/Puesta en escena:** FERNANDO BERNUES

**Argia/Iluminación:** ARTEKSON

**Jazkien egilea/Realización de vestuario:** DE-SASTRE

**Soinu teknikaria/Técnico de sonido:** JUANAN ROS

**Ekoizpenaren laguntzailea/Ayudante de producción:**
ALBERTO ARIZAGA

**Ekoizpen eragilea/Producción ejecutiva:** FERNANDO BERNUES

**Hedapena/Distribución:**
HELENA MENDINUETA, DANIEL HERES

**Eguna: 1.991ko Azaroaren 30an**
**Orduua: Gaueko 9,30etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: ZILBÒR HESTEA**

KADIKO
1991-
TZERKI
AKETAK



# GOG I MAGOG



## SINOPSIA

Gunea: kalea. Hala ere ez da egunero ezagutu dugun kale bera. Izaki fantastikoak, pertsonai arraroak, eta errealak, amets zaharrak, dantza erritualak, misterioa, arbasoengandiko ametsak cercavila/kalea mundu berri aintzinako bihurtzen dute, erabat ezberdina, amoragarri eta kexagarria, zeinean ez dago arrazionaltasunaren botere zentzugabeentzat tokirik.

## FITXA TEKNIKOA

Aldatzeko gela bat ispilu eta dutxekin.

Arduradun bat ekinaldia baino ordubete lehenago.

## FITXA ARTISTIKOA

ROBER BONET ...............Hankapalua
JORDI PESARRODONA...Hankapalua
GEMA GUILEMANY .......Hankapalua
PEP CALLAU .................Clow
ABEL GARCIA................Clow
ALBERT VINYES.............Monozikloa
ANDRES MOYANO..........Musikaria
JOSEP NOGUERA............Musikaria
FRANCESC RIERA ..........Musikaria

A D I K O
9 9 1 -
Z E R K I
K E T A K

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 1ean** **Lekua: Kalean**
**Ordua: Eguardiko 12,45etan** **Antzezlana: CERCAVILA Kalejira**




# KANDELA PRODUKZIOAK



## SINOPSIA

Nadira bere amaren bila doa, errefuxiatu itxitura batetik ihesi. Bidean Argiaren Erreginarekin egingo du topo eta honek misio arriskutsu bat eskatuko dio.

Ezerezaren eremureko bidaian. Nadirak intxisu bat, Melik, izango du bidelagun. Honen laguntzari esker, argiaren kutxatila berreskuratu eta gerra amaituko da.

## FITXA ARTISTIKOA

**Dramaturgia:**
ITZIAR ZUBIZARRETA
eta SANDRA DIAZ DE MENDIVIL
**Zuzendaritza:**
SANDRA DIAZ DE MENDIVIL
**Laguntzailea:**
ITZIAR ZUBIZARRETA
**Aktoreak:**
JOSE RAMON SOROIZ,
AMAIA RODRIGUEZ,
PILAR RODRIGUEZ,
ANABEL ALONSO,
AMAIA LIZARRALDE
**Eskenografia:** ANTONI BUESO
**Eraikuntza:** IKARO 57
**Titereak:** NARTXI AZKARGORTA
**Argiak:** ANNA PEDREIRA
**Teknikoa:** JAVIER MOLINA
**Soinua:** JOSE LUIS RUBIO
**Teknikoa:** IÑAKI ELIZONDO
**Montaia:** IRUDI-OTS
**Musika:** IÑAKI SALVADOR
**Jantziak:** EUGENIA PEREZ
**Makilajea:** AMAIA SOLER
**Diseinu grafikoa:** ANTTON OLARIAGA
**Argazkiak:** JUANJO AYGÜES
**Publizitatea:** DOCE SESENTA Y DOS
**Produkzioa:** KANDELA
**Distribuzioa:** MAIXA NAZABAL

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 2an**
**Ordua: Arratsaldeko 3etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana:** NADIRA ETA KRISTALEZKO BOLA



DIKO
91-
ERKI
ETAK




# TANTTAKA



## SINOPSIA

Urruneko herri batetan, mago, hada, belagile ta sorginak heuren gustora egin ta desegiten zuten garaian, Hansel ta Gretel bizi ziren.

Behin batean, etxetik iheska Hansel ta Gretel basora joan ziren. Sorgindutako baso batera, non... flauta ta biolindun hada, ipotx, igel eta zuhaitz magikoak sorginduta bizi ziren, txokolatezko etxeko bat zuen sorgin baten menpe... eta beno, hemen hasten da **Hade-n opera hau.**

## FITXA ARTISTIKOA

**Hansel** .........ANGEL PAZOS (Tenorea)
**Gretel** ..........MAR CARRERO (Sopranoa)
**Aita** ............KOLDO LOSADA (Baritonoa)
**Belinda** ........KOLDO LOSADA (Baritonoa)
**Ipotxa** ..........ITZIAR SUAREZ ("Antisopranoa")
**Hada**............LARRAITZ INSAUSTI (Sopranoa)
JUAN M.ª RUIZ (Oboe ta Corno ingelesa)
JIMY BIDAURRETA (Fagota)
ESTIBALIZ GALARDI (Biolina)
AINARA SISTIAGA (Pianoa)

**Musika konponketak:** CARLOS JIMENEZ
**Eskenografia ta kartela:** VICTOR RUBIO
**Jantziak:** KOLDO LOSADA
**Argiak:** FERNANDO BERNUES
**Jostunak:** JULIANA ORTOLAIZ, MARIBEL CASAL
**Eskenografigilea:** TXUMA
**Muñekogilea:** IGNACIO AZKARGORTA (Taun-Taun)
**Argi teknikoa:** SANTI EZKURRA
**Produkzio buru:** ALBERTO ARIZAGA
**Banaketa:** HELENA MENDINUETA
**Musika zuzendaria:** JUAN M.ª RUIZ
**Zuzendari laguntzailea ta Euskaratzailea:** MIREIA GABILONDO
**Dramaturgia ta Zuzendaritza:** GARBI LOSADA

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 4an**
**Ordua: Arratsaldeko 3etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: HANSEL ETA GRETEL BEZALA**



# IN FRAGANTI



## SINOPSIA

Zergaitik ez dute mutilek bonba botatzen?

Zergaitik kostatzen zaie hainbeste, beraiek ere etxetik irtetzen zer jantzi pentsatzen dutela onartzea?

Zergaitik ez dute beraien burusoilkeriari edo zahartzeko beldurrari buruz hitzehiten, edota "mundu modernoarentzat" hain "estetikoak" ez diren tripa horiek galtzeko duten borondate txikiaz?

Zenbat aldiz esanda, inongo lotsarik gabe, emakumeak intuizioa eta gizonek intelijentzia dutela?

Zenbat gizonek aldarrikatu dute intuizioa edukitzeko eskubidea?

Zenbat begirada, eztultxo, ixilune, harrokeria, jarrera e.a. ez ditugu ondo ulertu?

Zenbat maitasun, amodiogaldu eta kalabaza bildu ditugu zergaitik jakin gabe?

Guzti hau eta gehiago sentituko duzue gu "IN FRAGANTI" harrapatuta.

HIRU NESKAK.

## FITXA ARTISTIKOA

**Aktoresak/Actrices:**
IDOIA SAGARZAZU,
OLATZ BEOBIDE,
ANE GABARAIN.

**Zuzendaritza/Dirección:**
EDI NAUDO.

**Ahots aholkua/Asesor vocal:**
LOIOLA GARMENDIA.

**Armonizazioa/Armonización:**
ANGEL UNZU.

**Musika moldaketa/Arreglos musicales:**
IÑAKI SALVADOR.

**Eszenografia diseñua/Diseño de escenografía:**
EDI NAUDO.

**Argi diseñua/Diseño de luces:**
EDI NAUDO.

**Jantzi diseñua/Diseño de vestuario:**
IN FRAGANTI.

**Makilaia/Maquillaje:**
KARMELE SOLER.

**Laguntzaile bereziak/Colaboradores especiales:**
KIKE AMUNARRIZ,
JOSEBA TAPIA,
ARTZAI.

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 5ean** | **Lekua: Zelaitxon**
**Ordua: Gaueko 9,30etan** | **Antzezlana: IN FRAGANTI**




Goizeko hiru orduak, gutti gora behera... Molde harrigarri batetan, oso zainetan den mutil bat gizon zahar bakarti bezain kalakari baten etxean sartzen da. Gertakarien ondorioz, gauaren zati on bat elgarrekin bizitzera bortxatuak izanen dira. Goizeko seiak arte, berantenaz...

Ozentasun moderno bat, gizaldien arteko borroka gainditzen duen gaia, sendimenduz eta emozionez betea, umore onaz dena barre, memento berean arnasa hasarre, bi gizonak, emeki emeki, segeretuzko kidetasun batetan lotuko dituen antzezlana...

## MARC PERRIER

IDAZLEA / L'AUTEUR

Marc Perrierek antzertiarentzat lan egiten du, baita ere zinema, irrati eta telebixtarentzat.

"Berantenaz seietan" obrarentzat saristatua izan zen 1983 ean. Geroztik, antzerki hori zortzi hizkuntzetan itzulia izan da, euskaratua izan baino lehen...



Marc Perrier travaille pour le théâtre mais également pour le cinéma, la radio, la télévision.

Au cinéma, il a été notamment co scénariste des films "Le grand bleu", "Subway" de Luc Besson, "Ronde de nuit" de Jean-Claude Missiaen. Il est l'auteur de nombreuses pièces radiophoniques (... sauf Maman !, Chambre treize, Joe Métro...), du scénario de Toros de Bruno Gantillon pour la télévision. Pour la pièce "Six heures au plus tard", Marc Perrier a obtenu le prix SACD des nouveaux talents en 1983. Depuis, cette œuvre a été jouée en huit langues avant d'être traduite en basque...

# BORDATXURI



Trois heures du matin environ... Dans des circonstances peu banales, un jeune homme bien excité entre dans la vie d'un vieux solitaire bavard. Les deux individus que tout sépare auront, par la force des événements, une bonne partie de la nuit à vivre ensemble. Jusqu'à six heures, au plus tard...

Sonorité moderne, thème contemporain qui transgresse le conflit des générations, sensibilité et émotion, humour et suspens, autant d'éléments qui uniront peu à peu les deux hommes dans une complicité secrète...

## JEAN-MARIE BROUCARET

ZUZENDARIA / LE METTEUR EN SCENE

Taula zuzendaria, jokolaria, Chimères antzerki taldearen eta Baionako antzerki festibalaren zuzendaria. Gainera, Jean-Marie Broucaretek irrati eta telebixtarentzat lan egiten du.



Metteur en scène, comédien, directeur du festival de théâtre franco-ibérique et latino-américain de Bayonne et du Théâtre des Chimères. Il a notamment réalisé les mises en scène suivantes : "Les chaises" de Ionesco, "La casa de Bernarda Alba" de Lorca, "Le malade imaginaire" de Molière, "L'autre" de A. Chedid, "Divines paroles" de R. del Valle Inclan ainsi que les deux précédentes créations de Bordaxuri ("Bidean hitz bat edo bi", adaptation de "Quelques mots en passant" de Francis Basterot et "Gure etxeko oiak eta orgak" d'après "Portrait de famille" de Denise Bonal).

## JANINE URRUTY

ITZULTZAILEA / LA TRADUCTRICE

Erakaslea, Hazparneko ikastolaren zuzendaria, jokolaria, itzultzailea. Bordaxuri eta Maribisos antzerki taldeetan partaide izana.

Enseignante, directrice de l'Ikastola d'Hasparren, comédienne, traductrice. A joué au sein des compagnies Bordaxuri et Maribisos.



| | |
|---|---|
| **Eguna: 1.991ko Abenduaren 7an** | **Lekua: Zelaitxon** |
| **Ordua: Gaueko 9,30etan** | **Antzezlana: BERANTENAZ SEIETAN** |



O
I
K



# GOG I MAGOG



## SINOPSIA

Garaia urrunekoa, amodioa betierekoa.

Denboraren joaneran Erdi Aroko magia ailegatzen zaigu.

Euren bidea jarraitzen duten bi bide paralelo: arrazoia; ordena eta ezarritako baloreak; zaldunak.

Lasaikeria; parranda; instintuaren arrazonamendua besterik ezagutzen ez duen herri bat... herensugea.

Berezkoak ziren jarduerak mantentzeko borrokatzen duten pertsonai mendetsuak: betiereko aurkakotasunean ari diren bi mundu.

## FITXA TEKNIKOA

Aldatzeko leku zabala ispiluak eta dutxekin.
Arduradun bat ekinaldia baino 3 ordu lehenago.
Ekinaldi bukaerarako plaza bat.
Argi tona plazan.

## FITXA ARTISTIKOA

ALBA BOSCH ..................................Dontzeila
JORDI PESARRODONA ...................Herensugea
ROBERT BONET ..............................Zalduna
GEMA GUILLEMANY .....................Zalduna
ABEL GARCIA..................................Zalduna
OLGA SALA ......................................Zalduna
ALBERT VIÑAS ...............................Laboraria
LLUIS TOZO......................................Laboraria
PEP CALLAU ....................................Laboraria
MIREIA SANTCLIMENS ..................Laboraria
ANDRES MOYANO ..........................Laboraria-musikaria
JOSEP NOGUERA ............................Laboraria-musikaria
JORDI CASAS....................................Laboraria-musikaria

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 8an**
**Ordua: Eguardiko 12,45etan**
**Lekua: Kalean**
**Antzezlana: IN ILLO TEMPORE**



# BEDEREN 1



## SINOPSIA

Anima Satanasi saldu zioten Beltzebu Zakartsu eta bere izeba Tirania Banpirentzat, planeta suntsitzeko epea amaitzen ari da, eta horretarako jaso zituzten botere apartekoak.

Delial Zakartsuk oinordekotzan biei erdibana emandako pergaminoan dago "DESIOEN PONTXEAREN" formula.

Katua eta belea dira lana eragotziko dietenak; animalien kontseilu sekretuko espioiak.

San Silvestre gaueko kanpaiak jotzear daude...

## FITXA ARTISTIKOA

**ERREPARTOA:** (azaldu ahaleko ordenan)

**Belcebu sarcasmo:** JON EZKURDIA
**Maledictus oruga:**
PATXI SANTAMARIA
**Maurizia di Mauro:**
MARIBI ARRIETA
**Jacobo osadias:**
PATXI SANTAMARIA
**Tirania vampir:** XABIER AGIRRE
**San Silvestreren ahotsa:**
INAZIO TOLOSA

**Eszenografia diseinua:**
JON BERRONDO
**Jantzien diseinua:**
TXEMA NOGUES
**Musika:** TONI VILLAR
**Argi diseinua:** JOKIN KONDE
**Mugimendu diseinua:** IÑAKI LANDA
**Makilaia diseinua:** AMAIA SOLER
**Argazkiak:** JOSU ERRANDONEA
**Diseinu grafikoa:** VICTOR RUBIO

**Itzultzaileak:**
BEATRIZ ZABALONDO,
J. L. ARANGUREN "Txiliku"
**Egokipena:** ITZIAR ZUBIZARRETA,
SANDRA DIEZ DE MENDIVIL
**Zuzendari laguntzailea:**
INAZIO TOLOSA
**Zuzendaria:** PETER GADISH
**Autorea:** MICHAEL ENDE
**Eszenografia lanak:** IKARO 57
**Jantziteria lanak:** PEPI SOROIZ
**Eszenografia laguntzailea:**
SUSANA URKIA
**Atrezzoa:**
JON BERRONDO,
TXEMA NOGUES
**Argi teknikoa:** JON ANIBAL
**Soinu teknikoa:** TONI VILLAR
**Garraioa:** SORGINA

**Produkzio ejekutiboa:**
NATALIA SAENZ
**Promozioa:** XABIER AGIRRE

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 13an**
**Ordua: Gaueko 9,30etan**

**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: DESIOEN PONTXEA**



# ANTXIETA



## SINOPSIA

Gabriel Arestiren antzezlan honetan Kepa Anasagasti ofizioz kimikoaren bizitzaren zati batetan kokatu beharra dago.

Keparen bizian Ugartemendia anai-arrebak leku bat hartu dute eta hauen marmarrak gutxi balira pertsonai estraino bezain harrigarri batzu betetzen dute bere egunerokoa: hiru deabru eta santu bat.

Lau ekintzetan tajututako obra honetan bertsotan nahiz hitz lauz egunerokotasunean pertsonaiaren sentimendu barnekoiarenak azalduko dira, maitasuna, zalantza, elkar ulertu ezina, bekaizkeria agian. Baina Aresti haruntzago doa. Ingurua aztertu nahi du pertsonen jokaerak desohizkoak diren egunetan, egoera berritan.

Gainera ikuslearen harridura handiena ere piztuko da ustekabeko pertsonai "errealak" azaltzean, bere arreta mantenduko bakarhizketa esanguratsuetan, eta bere irria ezpainetara ekarriko idazle eta poeta Bilbotarraren humore fin eta sarkorrari esker.

Kepa Anasagasti lasai bizi da, Arantza bere andrea maita du eta batzuk zorotzat joko badute ere ez dio gehiegi axola. Hiru deabruak eta santua ordea dena nahastera datozkio... ondo baino hobeto lortuz gainera.

## FITXA ARTISTIKOA

**Kepa Anasagasti:**
**Práxedes Ugartemendia:** IÑIGO AGIRRE
**Arantxa:** IDOIA URANGA
**Karmele:** ALAITZ OLAIZOLA
**Tereze:** IRUNE ZUAZOLAZIGORRAGA
**Garbiñe:** MARIJO SEGUROLA
**Iñaki:** JUANAN ZURDO
**Baal:** IÑAKI BERGARA
**Belial:** AINTZANE ARANBARRI
**Lebiatan:** JOXE ZABALA
**Aita San Nereo:** PEIO OTAEGI
**Eszenografia eta kartelaren diseinua:** IMANOL GURIDI
**Arotza:** JEXUS MARI GARMENDIA
**Margolaria:** ANDRES MAIZ
**Argiak:** FRAN ARRIETA
**Musika:** PEIO LARRAÑAGA
**Laguntzaileak:** JOXE ARANBURU
PILAR AIZPITARTE
JOXE KEREJETA
JOXEINAZIO AIZPITARTE
NAGORE ARANBURU
LEIRE BETEGI
PILI CIRCUJANO

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 14an**
**Ordua: Gaueko 9,30etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: BESTE MUNDUKOAK ETA ZORO BAT**



# KUKUBILTXO



## SINOPSIA

Musika deikor eta majiko batek bidaliko ditu euskal folkloretik ateratako hamaika pertsonai fantasioso, arbasoengandiko tribu bat osatuz.

Zulatzailea eta Anderea sortutako koortearen bideratzaileak izango dira, Ttunttурroa eta Zanpanzaharra, beti zalapartatsu eta mugikor, zaindariak izanik hauen sateliteak bihurtuko direlarik.

Bobo, Katximorro, Kotilun Gorri eta Pittu dantzari zoroak, bufoi antzera, dantza zein era guztietako txilipurdi, akrobazia, eta jolas alai eta mugikorrei gogo ase ezinaz ekingo diote.

Musikariak izango dira jai mugikor honi hots kolorea eta erritmo bizia emango diotenak, erromeria alaitsu batekin bukatuz.

## FITXA ARTISTIKOA

**MOETA: Kalejira.**
Hankapalu gainean dabiltzan txontxongilo erraldoi, dantzari eta musikoz osatutako kale animazio musikala.

**Sormena:** KUKUBILTXO

**Musika:** BILBOKO GAITEROAK (Herrikoia)

**Txontxongilo egilea:**
KUKUBILTXO,
MIKEL DIAZ BRAVOren zuzendaritzaz

**Zuzendaria:** JOSU CAMARA

**BANAKETA: Titiriteroak:**
MARIFELI ETXEANDIA
KEPA MARQUEZ
JON MIKEL MARTINEZ
KONTXI AROSTEGI
UNAI KINTANA

**Dantzariak:**
MIREN BECI
OSCAR CASTAÑO

**Musikariak:**
BILBOKO GAITEROAK

**Atrezzo:** JOSEAN PEREZ, JOSU CAMARA

**Beharrizan teknikoak:**
Eskenategia: 2 m x 2 m
Argi indarra: 5.000 watio
Lur toma

**Gune eskenikoa:**
Kale arteko ibilbidea, hasiera plaza batetan eman eta berriz bertan bukatuz

**IRAUPENA: Ekinaldia:** ordu bete
**Muntatzea:** bi ordu
**Desmuntatzea:** ordu bete

**Ikuslegoa:** Adin guztiak

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 15an**
**Ordua: Eguardiko 12,45etan**

**Lekua: Kalean**
**Antzezlana: JALGI HADI DANTZARA**



# SAMBHU TEATRO



## SINOPSIA

Zirko Iberikoko zuzendariak zirkoaren aintzineko espiritua aldatzea erabaki du, Romantizismo nostalgikoa, dagoeneko zeharo irola, bertze joera gaurkoago eta modernoago baten ordez. Horretarako aspaldiko artistak despeditzen ditu, ondoren, kale bazterretako pertsonaiak kontratatzen ditu. Zirko ekitaldi berriak irakasten dizkie eta, behar izanez gero, burutarazi ere bai. Ekitaldi hauek, zuzendariak trebeki prestatuak, kolokan jartzen dituzte artista berriak, hain dira gogor eta zailak non pertsonaien erreakzioak harrigarri, desberdin eta esperogabekoak suertatzen baitira.

Zuzendaria libertitzen da, eta hainbertze libertitzen da non... Baina "zenbat eta gorago muturreko handiago" bere boterea ere erortzen doa eta, denon gustorako, agerian dugu ikuskizun berria: aintzineko zirkoaren espiritu erromantikoa eta bizitzaren zirkoa nahasten.

## FITXA ARTISTIKOA

**Ikuskizuna:**
"Zenbat eta gorago muturreko handiago"

**Zuzendaritza:** ANDREZJ LEPARSKI

**Gidoia:** Elkarren arteko sortze-lana

**Aktoreak:** AZUCENA ZABALETA
CARLOS SALABERRI
JUAN ANTONIO SAN JOSE

**Musika:** JOSETXO GOIA

**Masail apainketak:** SARA NAPAL

**Eskenografia eta jantziak:**
ALFRED CASAS
JOSEP MARIA CARBONELL

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 16an**
**Ordua: Arratsaldeko 3tan**

**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: ZENBAT ETA GORAGO MUTURREKO HANDIAGO**




# HAMAR GEI BAT LEOTARDO



## SINOPSIA

Hiru ikasle eta erretorea ikastetxe erlijioso batetan aurkitzen dira. Ikastetxe horretan liburu baten inguruan gauza misteriotsu batzuk gertatzen dira eta ikasleek misterioa ezagutu nahi dute.

San Juan eguna gainean da eta horretan, beraien San Juan egunaren antolaketaz asperturik, beraiek bezalako gazte batzuek San Juan eguna nola igarotzen duten imaginatzen hasten dira. Irudimen honetako gazte hauek bere gaua aurkezten dute. Jarraian irudimeneko gazte hauen berdinak izan nahian, ikasleak mozkortu egiten dira.

## FITXA ARTISTIKOA

**Arduraduna:** M. I. ZUAZOLAZIGORRAGA
**Antzerki zuzendaria:** ASCENSION ESCALADA IMAZ
**Egilea:** HAMAR GEI BAT LEOTARDO antzerki taldea bera
**Banaketa:**
**Ikasle 3:** SARA GARCIA GOMEZ
**Ikasle 2:** NEREA ODRIOZOLA ZENDOIA
**Ikasle 1:** ASIER AGIRIANO
**Erretorea:** HARITZ KARRERA ELUZTONDO
**Gazte tradizional xelebrea:** ALAITZ OLAIZOLA BORDA
**Gazte xelebrea:** IMANOL GARCIA LANDA
**Gazte mozkorra:** MIGUEL SANTAMARIA PIZARRO
**Gazte egozkorra:** LARRAITZ GURRUTXAGA MITXELENA
**Gazte dantzaria:** LEIRE EIZMENDI IRIONDO
**Gazte presoa:** IGOR LANDA BERECIARTUA

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 17an**
**Ordua: Arratsaldeko 3etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: IRUDIMEN IHESLARIA**




# MARKELIÑE



**SINOPSIA**

Santo Cristo de las Faldillas Monasterioa.

Lau praile: Antonio de Campanillos Abatea; agure eta kurruxkaria. Adon prailea, zatarra eta lizuntsu samarra. Bruno, nahiko berezia eta Mikel Jacksonen "fans"-a. Evaristo, kanposantuan datzan hezurrak. Baina aktuatzen du.

Eta azkenez Margari: Nor da?
Jaingoikoa?
Deabrua?
Ala oiloa bakarrik?

Hau ikusita, pertsonai hauekin edozein gauza gerta daiteke. Imajina ahal duzu...

...Brunok gauez eiakulatu eta Jaingoikoak harrapatzen duela?

...Adonek penitentziak entzun beharrean erotiko kantak entzuten dituela?

...Antoniok irratiko gimnasia saioa egiten duela?

**FITXA ARTISTIKOA**

**Gidoia:** MARKELIÑE
**Zuzendaritza:** ISIDRO RODRIGUEZ
**Ekoizpena:** MARKELIÑE TALDEA
**Markeliñe:** IÑAKI EGILUZ
JAVIER RENOBALES
JOSERRA MARTINEZ
**Tekniko zuzendaritza:** JON KEPA MORENO
**Argi teknikaria:** JON ARRIETA
**Eskena agindaria:** NEREA ASTOREKA
**Eskenografia eta atrezzo:** ANGEL CALVETE
**Jantzia:** BEGO RODRIGUEZ
**Makilaia:** KRISNA'S
**Argi diseinua:** ANDRES BELADIEZ
AITOR AGORRIA
**Publizitate diseinua:** JON MIKEL EUBA
**Bideo muntaia:** JULEN ALTUBE
**Ahotsa "Off"-ean:** MARIAN GUERRERO
**Musika aukeraketa:** ISIDRO RODRIGUEZ

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 20an**
**Ordua: Gaueko 9,30etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: ZERUKO LUMAK**



# PORPOL



## SINOPSIA

Ikuskizun honetan aktore bakarrak, musikari baten laguntza besterik ez duela, etengabeko dibertimendu batean dauka ikuslegoa, saioak hirurogeitabost minutu irauten badu ere.

Clown-ikuskizun gehienetan ez bezala, antzezlan dibertigarri honek istorio samur bezain poetikoa kontatzen digu, halako ikuskizunetako ohizko ''gags''- segida lokabeari gaurdaino ez zeukan osotasuna ezkeiniz.

## FITXA ARTISTIKOA

**Eszena tokian:** JABIER ALKORTA
**Piano eta abarretan:** BIKTOR GARCIA DE LA TORRE
**Argiztaketan:** LUIS JOAKIN SAN MARTIN
**Ikuskizun teknikaria:** GORKA BASTERRETXEA
**Diseinu grafikoa:** MINTXO ZEMILLAN
**Zuzendu dute:** KARMEN RUIZek eta
LUIS JOAKIN SAN MARTINek
**Produkzio eta errealizazioa:** PORPOL, S.C.L.

**Eguna: 1.991ko Abenduaren 21an**
**Ordua: Arratsaldeko 7,30etan**
**Lekua: Zelaitxon**
**Antzezlana: ''QUIZAS''**

HAURRAK ANTZEZLARI














## ESKOLA ANTZERKIA

**ABENDUA**

Astelehena 9 - Goizeko 11etan - ZELAITXON
**BASTIDAKO IKASTOLA GOI ZIKLOKOAK**
**Pasaia - Lehenengo oporrak**

Astelehena 9 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**AULESTIA eta BERRIATUAKO ESKOLAK GOI ZIKLOKOAK**
**Zirkoa - Atrakoa - Zikinena**

Asteazkena 11 - Goizeko 10etan - ZELAITXON
**BILBOKO TXURDINAGA ESKOLA**
**O.H.O.ko 7. MAILA**
**Bi letter jaso nituen - Oso denbora gutxian**

Asteazkena 11 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**ASTIGARRAGAKO REGINA APOSTOLORUM ESKOLA - O.H.O.ko 6. MAILA**
**Max, ze tipoa!**

Osteguna 12 - Goizeko 11etan - ZELAITXON
**ORIOKO HERRI IKASTOLA**
**ERTAINEKO 1. MAILA**
**Uste diñat ya lo creo - Aizu, Aizu, Kamarero**
**Lau arpajole mundialak**

Osteguna 12 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXON
**AZPEITIKO JESUSEN ALABAK**
**O.H.O.ko 5-6. MAILAK**
**Edurne zuri eta zazpi ipotxak**





Joantzen urtea
gogoratuz









...eta urrengo urtean
gehiago eta hobeto.





AZPEITIKO UDALEKO
KULTUR BATZORDEAK

EUSKO JAURLARITZAKO
KULTUR SAILAREN

EUSKADIKO EUSKAL
ANTZERKI TOPAKETAK

GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA

BIZKAIKO
FORU ALDUNDIA

D. L. SS - 1.148/91
Inprimategia: MARTINEZ, C.B. - AZPEITIA